





### BEGITHARTE HORIEK :

- ☉ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.
- ☽ " Argizagi azken laourdena.
- ☿ " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.
- ♃ " Argizagi lehen laourdena.

### OURTHEKO BESTA KHANBIAKORRAK :

SETUAJESIMO, *ourtharilako* 29<sup>an</sup>; — HAUSTE, *baranthailako* 15<sup>an</sup>; — BAZKO, *aphirilako* 2<sup>an</sup>; — ERROGAZIONIAK, *maiatzeko* 8<sup>n</sup>, 9<sup>n</sup> eta 10<sup>an</sup>; — SALBATORE, *maiatzeko* 11<sup>an</sup>; — PHENTEKOSTE, *maiatzeko* 21<sup>an</sup>; — BESTABERRI, *arramaiatzeko*, 1<sup>an</sup>; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *abentuko* 3<sup>n</sup>.

### LAOUR THENPORAK :

Baranthailako 22 <sup>n</sup> , 24 <sup>n</sup> eta 25 <sup>n</sup> .	}}	Buruilako 20 <sup>n</sup> , 22 <sup>n</sup> eta 23 <sup>n</sup> .
Maiatzeko 24 <sup>n</sup> , 26 <sup>n</sup> eta 27 <sup>n</sup> .	}}	Abentuko 20 <sup>n</sup> , 22 <sup>n</sup> eta 23 <sup>n</sup> .

### EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Eztirate 1893<sup>an</sup> bi ekhi ulhuntez baizik. — Bata oso, *aphirilako* 16<sup>an</sup>; pharte ikhousiren da Uskal Herrian. Hatsarria arrastiriko oren bakhotchian, urhentzia laouak eta erdietan. — Bestia urrietako 9<sup>an</sup>; ezta ikhousiren Uskal Herrian.




FOREL



HANITCH KHASU HOUNI

ZIBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hila-beteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigerren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik datu bost ourthez arrount. Aourthen hasten da bigerren arraldia, 1897<sup>an</sup> urhentzekoa.



\*  
\*\*

Zazpigerren aldikoz agertzen da ziberoutar armanak haou. Lehentze egin guninian zer nahi erran zeikien ungurunetako gaseta gorriek. Halere eijerki burutan joan zen, eta geroztik, ourthekal saltzen da hamabi ehun armanaken ungunia. Gorriek egin zien oundoko ourthian bere khountuko armanak bak, haou goithu nahiz araouz. Bena hirour ourtheren buruko hil izan zen, eztakie ountsa zer gaitzek jorik; eta heren ourthian ere etzen agertu martchoari buruz baik, berantto beitzen armanak batentako. Dioie zounbaitek etzela hanbat saltzen, eta azkenian ere, deusentako ukhen zitirokielarik, ihour etzela hetzaz arrankura.


Ahalak egiten tugu ziberoutar laborarien hounetan. Bost ourthe hountan laborantchan izan diren berritzapen haraintienak ezagut erazi tugu, jente jakintsien erakouspenen araouera, eta geroan halaber egin gei dugu. *Politikaz* ere mintzatu behartu zaiku, hañ dira handi gaseta gorriek bouhatzen deizkien gezurrak, eta hañ dira hurrun hedatzen. Behinere kasik eztira berriak emanik diren bezala, gudu egiteko ouhourallu eta sakratu

direner; Elizako aitzindarien erakouspenak oro okher emanik: arra eta arra erranik dena sinhesten da; gasetetan izkiribatia ihourk eraikiten du, berarentzen, nahigaberik, eta hatzamanik baratzen. Halako erranen gezurtatzia houn da, ezpaliz baizik jente hanitchen gogo houn eta chuchenen khordokatzeraz ez eizteko, hain da handi gaichtoen bekhokeria. Eta othoizten tugu goure adichkidiak egin ahalak oro egin ditzen armanak hounen barreiatzeko eta ezagut erazteko.

Hanitchi sobera zaie bi sosen emaitia; eta hatik armanak haou da orotako merkena; izkiribia chehe eta tink du eta badu bethi hogeita hamabi holla erakourteko. Frantzia barneko labororientako diren armanakak, bietan hounek diana edeiten beitie edo bietan eta erdi, saltzen tie hamar sos, eta erostun franko badie. Aldiz soseko armanaketan zerda erakourtzeko? ezta segurrik hamar holla ere. Eztaite arren prezioa aphalt, eta bi sos phakatu behar delakoan ezpadie zounbaitek erosi nahi, ountsa arrazou tcharra die. Aourthen lehentze ezari dugu armanakian bi imaje. Ourthe oroz geroan izanen dira biga, edo haboro behar bada, eta eman gei tugu emeki emeki, Uskal Herriko gizoun aiphatienenak.



### *Erran zahar*



Adichkidia behar da gaiza tchipietan borogatu, handietan egari.

Adichkide egik, ez behar dianian, bena behar dukianeko.

Adichkidiaz egik urhiaz bezala,  
Ikhertu gabe har eztezala.

Ago Jinkoareki, Jinkoa dukek hireki.



OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- Ⓔ a. o. 2<sup>n</sup>, arrastiriko or. I eta 50<sup>min</sup>
- Ⓕ a. l. 9<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 38<sup>min</sup>
- Ⓖ a. b. 18<sup>n</sup>, goizanko or. I eta 38<sup>min</sup>
- Ⓓ l. l. 25<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 36<sup>min</sup>

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- Ⓔ a. o. 1<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 20<sup>min</sup>
- Ⓕ a. l. 8<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 21<sup>min</sup>
- Ⓖ a. b. 16<sup>n</sup>, arrastiriko 4<sup>or</sup> eta 26<sup>min</sup>
- Ⓓ l. l. 23<sup>n</sup>, arrastiriko 2<sup>or</sup> eta 23<sup>min</sup>



- |                   |                           |
|-------------------|---------------------------|
| 1 <b>Igante.</b>  | ZIRKONZISION              |
| 2 Astelehen.      | s. Makaire.               |
| 3 Asteharte.      | s <sup>a</sup> Jenevieva. |
| 4 Astizken.       | s <sup>a</sup> Fausta.    |
| 5 Ostegun.        | s <sup>a</sup> Amelia.    |
| 6 Ostirale.       | APHARIZIO.                |
| 7 Neskanegun.     | s <sup>a</sup> Melania.   |
| 8 <b>Igante.</b>  | s. <i>Luzien.</i>         |
| 9 Astelehen.      | s. Julien.                |
| 10 Asteharte.     | s. Marzien.               |
| 11 Astizken.      | s. Teodoso.               |
| 12 Ostegun.       | s <sup>a</sup> Taziena.   |
| 13 Ostirale.      | s. Leonze.                |
| 14 Neskanegun.    | s. Hilera.                |
| 15 <b>Igante.</b> | s. <i>Phaole, erm.</i>    |
| 16 Astelehen.     | s. Marzel.                |
| 17 Asteharte.     | s. Antoni.                |
| 18 Astizken.      | J. Phetir. Err. Jartia    |
| 19 Ostegun.       | s. Kanut.                 |
| 20 Ostirale.      | s Fabien eta Sebast.      |
| 21 Neskanegun.    | s <sup>a</sup> Añes.      |
| 22 <b>Igante.</b> | s. <i>Bizente.</i>        |
| 23 Astelehen.     | A. B. <i>Ezkountz.</i>    |
| 24 Asteharte.     | s. Timote.                |
| 25 Astizken.      | J. <i>Phaoulkounb.</i>    |
| 26 Ostegun.       | s. Polikarpe.             |
| 27 Ostirale.      | s. Johane Kris.           |
| 28 Neskanegun.    | s. Amedeo.                |
| 29 <b>Igante.</b> | <i>Seluajesimo</i>        |
| 30 Astelehen.     | s <sup>a</sup> Martina.   |
| 31 Asteharte.     | s. Petiri Nol.            |

- |                          |                               |
|--------------------------|-------------------------------|
| 1 Astizken.              | s. Iñazio.                    |
| 2 Ostegun.               | KHANDERALLU                   |
| 3 Ostirale.              | s. Blasi.                     |
| 4 Neskanegun.            | s <sup>a</sup> Jana, Val.     |
| 5 <b>Igante.</b>         | <i>Selsajesimo.</i>           |
| 6 Astelehen.             | s. Aman.                      |
| 7 Asteharte.             | s. Romual.                    |
| 8 Astizken.              | s. Johane Mat.                |
| 9 Ostegun.               | s <sup>a</sup> Apolina.       |
| 10 Ostirale.             | s <sup>a</sup> Eskolaztika.   |
| 11 Neskanegun.           | A. M. Lourdakoa.              |
| 12 <b>Igante.</b>        | <i>Kinkajesimo.</i>           |
| 13 Astelehen.            | s. Jilbert.                   |
| 14 Asteharte.            | s. Valenti.                   |
| 15 Astizken.             | HAOUSTE                       |
| 16 Ostegun.              | s <sup>a</sup> Juliena.       |
| 17 Ostirale.             | s. Hiji.                      |
| 18 Neskanegun.           | s. Flavien.                   |
| 19 <b>Igante.</b>        | GOROZUM. 1 <sup>a</sup> .     |
| 20 Astelehen.            | s. Eucher.                    |
| 21 Asteharte.            | s. Pepeñ.                     |
| 22 Astiz <i>IV. Th.</i>  | J. Phetir. Ant Jart.          |
| 23 Ostegun.              | s. Petiri Dam.                |
| 24 Ostir. <i>IV. Th.</i> | J. MATHIAS, ap.               |
| 25 Nesk. <i>IV. Th.</i>  | s. Zezair.                    |
| 26 <b>Igante.</b>        | <i>Gorozum. 2<sup>a</sup></i> |
| 27 Astelehen.            | s <sup>a</sup> Batilda.       |
| 28 Asteharte.            | s. Rufi.                      |



MARTCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ☉ a. o. 2<sup>n</sup>, arrastiriko 4<sup>or</sup> eta 12<sup>m</sup>.
- ☽ a. l. 10<sup>n</sup>, arrastiriko 5<sup>or</sup> eta 23<sup>m</sup>.
- ☿ a. b. 18<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 43<sup>m</sup>.
- ♃ l. l. 24<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 43<sup>m</sup>.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☉ a. o. 1<sup>n</sup>, goizanko 7<sup>or</sup> eta 27<sup>m</sup>.
- ☽ a. l. 9<sup>n</sup>, goizanko 11<sup>or</sup> eta 45<sup>m</sup>.
- ☿ a. b. 16<sup>n</sup> arrastir. 2<sup>or</sup> eta 44<sup>m</sup>.
- ♃ l. l. 23<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> eta 36<sup>m</sup>.
- ☽ a. o. 30<sup>n</sup>, arratsek. 11<sup>or</sup> eta 32<sup>m</sup>.



- 1 Astizken. s LEON, Baion.
- 2 Ostegun. s. Zinplize
- 3 Ostirale. sa Kunegonda.
- 4 Neskanegun. s. Kasimir.
- 5 **Igante.** Gorozum. 3<sup>a</sup>
- 6 Astelehen. sa Koleta.
- 7 Asteharte. s. Tomas Akin
- 8 Astizken. s. Johane Jink.
- 9 Ostegun. sa Frantzesa.
- 10 Ostirale. 40 Martirak.
- 11 Neskanegun. s. Konstanti.
- 12 **Igante.** Gorozum. 4<sup>a</sup>.
- 13 Astelehen. sa Ufrasi.
- 14 Asteharte. sa Matilda.
- 15 Astizken. s. Zakaria.
- 16 Ostegun. s. Ziriaka.
- 17 Ostirale. s. Patrik.
- 18 Neskanegun. J. Gabriel, ark.
- 19 **Igante.** PASIONIA.
- 20 Astelehen. s. Zirilo,
- 21 Asteharte. s. Benedit.
- 22 Astizken. sa Riktruda.
- 23 Ostegun. sa Peljajia.
- 24 Ostirale. s. Thebadi.
- 25 Neskanegun. A.D M. ANONTZ.
- 26 **Igante.** ERRAMU.
- 27 Astelehen. s Johane Dam
- 28 Asteharte. s. Justeñ.
- 29 Astisken. s. Pastor.
- 30 Ostegun. Osteg. saintu.
- 31 Ostirale. Ostir. saintu.

- 1 Neskanegun. Nesk. saintu.
- 2 **Igante.** BAZKO.
- 3 Astelehen. sa Irena.
- 4 Asteharte. s. Isidro, Aphk.
- 5 Astizken. s. Bizento Ferr.
- 6 Ostegun. s. Sisto.
- 7 Ostirale. s. Herman.
- 8 Neskanegun. s. Albert.
- 9 **Igante.** Kazimodo.
- 10 Astelehen. s. Makari.
- 11 Asteharte. s. Leon handia
- 12 Astizken. s. Jules.
- 13 Ostegun. sa Ermenejilda.
- 14 Ostirale. s. Justeñ.
- 15 Neskanegun. sa Anasztasia.
- 16 **Igante.** sa Grazi.
- 17 Astelehen. s. Anizet.
- 18 Asteharte. s. Elutero.
- 19 Astizken. s. Leon IX.
- 20 Ostegun. s. Teotimo.
- 21 Ostirale. s. Anzelmo.
- 22 Neskanegun. s. Soler eta Kaio.
- 23 **Igante.** s. Jorji.
- 24 Astelehen. s. Zerazi.
- 25 Asteharte. J. MARK, Eb.
- 26 Astizken. sa Klet & Marz.
- 27 Ostegun. s. Zerazio.
- 28 Ostirale. J. Phaole, K.
- 29 Neskanegun. s. Petiri, m.
- 30 **Igante.** sa Ka alina.



## AITA SAINTIAREN ERAKOUSPENAK



**O**ROK dakiena eta ihouri ahatzi ez behar dena da, Aita Sainiak, arte llaburren barnen, hirour alditara drano, galthatu diala Frantziako katolikoer bazterrialat eitzu ditzen gobernu mouldiaz dutien aharra edo berhezbidia, eta ere ounhets dezen Errepublika.

Hori arrapikatu deikie luzaz *Réveil Basque* eta *Indépendant* direnek eta hourak uduri gaseta gorriek, egun oroz arrapikatzen deikien bezala Frantzian eztela behinere Errelijionia hañ haizu eta hañ ouhouraturik izan. Hala baliz, etzukian Aita Sainiak Frantziako katolikoer egin errandelako galthoa. Eta gaseta gorriak ountsa begiratu dira erraitetik zer gatik Eliza orotako gehiena mintzatu den, hanichkottan erran badie ere Aita Sainiak ounhesten diala Errepublika.

Houna arren, hitzez hitz, zerbait aiphatu guthunetarik, gaseta gorriek eman ez dutienetarik :

« Nourk eztu ikhouston Frantzian diren katoliko guzien eginbide tinkena dela, Errelijioniaren begiraten aritzia ; eta hori hainbestenaz haboro gorthurareki, noun geroalat khiristiek egari behar beitutie, khidegoen alde-tik, goitzarren garratzagoak ? Hortaz denian aiphu, etzere haizu ez uzkuratzunik, ez eta ere algarren arteko berhez edo okherbiderik : uzkur egoitia, khiristibaten alhalkegarri lizate, eta algarreganik berhez egoitia, indargabe deithoragarribaten uthurburia. »

Gero Aita Sainiak khountatzen tu Errelijioniaren hatsarreko nekezia ezin aiphaitiak : « Igaranak nahi ukhen tugu hitz gutiz erran oraiko katolikoak dulura ezdi-

tian. » Eta hurrunchago dio bere beithan haizu zaiola Frantziako katolikobati gobernu mouldibat, zouin nahi den, maitiago ukheitia beste zouñ edo zouñ beno, beraortarik gobernu moulda bakhoitzak deus gaichtorik eztialakoz : « Eta gobernu berriak jarririk direnian, jabegoa edo naousitarzun oro Jinkoa ganik jiten denaz geroz, ezta berere haizu haien houn hartzia, bena, ezin bestian, houn hartu behar dira, algarren arteko hounaren gatik.... Hurrun arren herriaren egitekoetan diren berhez bidiak.... »

« Bena houna zer jiten den gogoala : Errepublika haou, dioienaz, hañ da kharisti gogoer aitzia, noun gizoun chuchenek eta gutiago katolikoek ezpelirokie bere beithan ounhets ahal. Hori izan da aiherbide ororen uthurburia, eta zerk ere geroago eta okherrago joan erazi beitu.

« Etzatekian holako okher dohakaberik, artharekieta berhezki sogin balie aldebatetik *jabe edo naousigoari*, eta bestetik *leger*. Hain dira berhez legiak eta photeregoa, zer nahi moldekoa dadin, noun moulda hobeneko photeregoan legiak ezinago gaichto bilha beituake ; aitzitik, moulda tcharreneko photeregoareki, legegoa ezinago houn... Chit harainti balinbada berhezgoa horren egitia, ezta segurki behargabetarik ; legiak egiten tie gizoun jabegoan, eta herriko aitzindari direnek. Hortik ageri da legiak diratekiala gobernian diren gizounen gogoko, zer nahi izanik gobernu mouldia, houn edo gaichto, noula ere beitate lege egilen gogo, eta zer chedetarik ere ari beitura.

« *Frantzian, aspaldiko ourthetan, egin tiela lege, eta ez gutienik harainti direnetarik, Errelijionari aitziko gibelgogoz edo jatzarkuntez, eta ber ordian Herriaren kaltetan, ezin ukhatia da, eta ehi ikhous daitekiana. Gihaourrek ere, goure eginbide hersia zelakoan, goure gogoa zinez erabilten zutien arrankurak hel erazi guntian ordian Errepublikako gehiena zenari. Bena gibelgogo hourak bethi aitzina joandira ; gaichkia handitzez ; ezta*



arren handi *Espiritu Sain*tiak zoun bere *Eliza aiphatien* zainzale ezari dutian kardinalak ouste ukhen badie, orano berri, haientako eginbidebat zela goratik erraitia zounbat bihotzmin derien ikhousliak zertara erazi dien *Frantzian Errelijione katolikoa*. Gaicho *Frantzia!* Jinkoak berak badaki zer leze gaitzetan barna eror laitekian herria, oraiko legegoa, hobetzeko orde, okherrian tink egon baledi, halaz *Frantzesen* gogotik eta bihotzetik idokitez hain gora altchatu tian *Errelijionia*. Etahorra hañ chuchen zertako egiazko gizounak, beraien arteko aharrabidiak eitzirik, behardiren algarganatu, oro bat jarri, gizounbat bera bezala, jaoukitek, legen araouko eta chuchen bidez, legegoako handitzez doatzan gaintier.


« *Gobernuko* jabegoer zor den errespetiak hortarik gibelt ez gitiro ; ez gitiro ere bortcha ounhestera, eta gutiago muga gabe jarraikitera, jabegoa haiek zer nahiden lege egin dutiener. Ezta ahazti behar legia goure beitharen araouko manubat dela, eta algarren arteko bizitziaaren hounetan, hortako photeriaren jabe direnek emana. Arren, *eztaile behinere bai erran Errelijioniari eta Jinkoari aitzi doatzan leger : eta ere eginbidebat da haien ez ounhestia.* »

Horietarik hitzbat ere ez tie aiphatu gaseta gorriek, ez *Réveil Basque* denak bestek beno haboro. Nahi ukhen die bekhokereki sinhets erazi irakourzaler *Aita Sain*tiak etziala deus gaitzesten *Frantziako* egitekoetan. Aldiz *Aita Sain*tiak kardinalier izkiribatu bigerren guthunian dio zertako mintzatu den : « Ichilik egon bagina, sinhetserazi nahi zukien bai erraiten guniala, edo gutienetik, gogoan guniala, khidegoek algarren arteko bizitzian eta *Errelijionian* athetu dutien arrabaskak, deusere egin gabe egartekoak zirela. Erran zukien arrimu eta laguntzarrik gabe eizten gintiala *Frantzes* bihoztoi, oraiko goitzarrenetan ezinago urgaitzi beharrian direnak.


« *Eta* gehienik heltu behar ginen aphezgoari, nahi lukielakoz ichilikegonerazi egunorozko egitekoetan phere-

dikatzen dianian, Ebanjelioaren araouera, khiristiazko eta algarren arteko bizitziaren eginbider jarraikitzia. »

Eman dutugunetarik ikhouston da Aita Saintiak berhezten diala artha handireki photeregoa edo gobernu mouldia legetarik, *batari bai erranak*, dioan bezala, *ezpeitaduka batere bester bai erraiten dela*. Hitz gutiz erraitera, Aita Saintiak Errelijioniaren althe diren guzier etche-kiten dere, eginbidebat bezala, ounhestez Errepublika. Errelijioniaren eta algarren arteko bizitziaren hounetan ehikiago ari ditiana gatik, algarganatzez beitukie hanitchez indar haboro etsaien goitzeko.



## MOUS DE ETCHEVERRY DEPUTATIA



**B**ADIRADE gizoun elibat hullanetik ikhousirik eta hobeiki ezaguturik izatia haien hounetan beita. Heta-rik da mousde Etcheverry goure deputatia. Etcheverrieneko etchondoa, Uskal Herriko lehenetarik eta aiphatienetarik bat da, eta mousde Etcheverry aita hamasei ourthezarrount deputatu izanik. Hortik ageri da Uskaldunek zouñngoresten zutien haren argiak, eta kartielarentako zer ugurukiten zien haren medioz. J.-B. Etcheverry bere herritaren kounfidantchari etzian behin ere ukhoe-gin, bena bai hen zuzenak bere indar oroz balia erazi, eta Uskaldun katolikoen deputatu bezala, goraki Errelijioniaren althe jarri. Zahartzian Jinkoak bihotzmin handibat igorri zeron : haren seme gettiena hil zen, loriouski erroririk Parisen, asken gerla denboran, Frantzia zerbutchatzen zialarik.

Bazian beste semebat, Mous de Louis Etcheverry, oraiko goure deputatia. Orai diala hirour ourthe izentaturik izan zen, berritan goitzen zutialarik goberniak eta goberniaren peko gizounek haren igaraitera ez eizteko



MOUS DE L. ETCHEVERRY

ezari zutien traba izigarriak. Uskalduner etzaie dolutu, ez eta geroalat dolutuko egin zien haitia. Nekez zatekian hobe.


M. Etcheverry gizounbat da, eta ere egiazko khiristibat, gizoun argitia, Uskal Herriaren eta Frantziaren houna zertan dagoen badakiana eta nahi diana, eta nahi dian hora ahalkerik ez lotsarik galthatzen diana. Behin beno haborotan deputatien aitzinian mintzatu da hanitch ountsa, eta merechi zian bezala behatu zaie. Bethi burhagertu da jente chehen eta nekezalen althe, eta laborariak eztu hora beno adichkide hoberik. Lehiareki laguntzen tu hari hersatzen direnak oro, bere aholkiez, bere jakitatiez, eta bere mousaz ere behar ordian. Aberats bada, ederki eta alageraki emaiten du obra houner, Elizer, eskola Jinkotiarer ; bere khostuz ere haietarik bat eragin du bere herrian.

Uskaldunaren lehen hountarizona da fedia ; deuseri ezta hainbeste etchekiten. Eta arren fediaeren bandera etzian esku hobiagoetan ezarten ahal. Goure deputatiak ederki erabili eta erabiliko du ; haren eskietan garbi egonen da. Hitz gutiz erraitera badugu, haituzko deputatubat, Uskal Herria ouhouratzen diana. Bachanabartar eta ziberoutar goure buriak ouhoua ditzagun goure deputatiaren hounkien ezaguttez, eta begira dezagun zer nahi khostarik. Adela gitian daigun ourtheke bozkala, eta berriz ere dezagun igor Mous de Etcheverry deputatien Biltzarreniala. Biba M. Etcheverry goure oraiko eta geroko deputatia !





## KONGREGAZIONIAK ETA GOBERNIA



**E**ZTA hilabeterik igaraiten noun ezten entzuten Goberniak nahi ukhen diala phaka erazi kongregazioner phetcha berribat, deitzen diena frantzesez *droit d'accroissement*. Phetcha hori aiphaturik izan da lehentze 1884<sup>an</sup> egin finantzako legian. Legia, geietan zelarik, gobernaren berme mintzatu zen deputatiak zioan : « Jaonak, zien deliberazioner libratzen dian legegei hountzaz, eztu besterik nahi gobernaiak, bai- zik eta aourhidegoa haizu direner edo ez, phaka erazi mundu orori galthatzen den ehungerrena.

Nahiz sei ourthe bazian lege hori eginik zela, gobernaiak etzian den gutieneko manurik eman kontrolurrer bidegabeko phetcha horren eraikiteko 1891 ourtheiko hatsarriala drano ; lotsaz araouz, lege horren ondorioa gaichto bilha ledin, eta jentiaik kongregazionen althe jar litian.

Heben ukhuratu gabe ikhertzen zertan kongregazionebatek bardin izan behar dian beste mundu ororeki, dugun erran berhala gobernaiak komentien uduri bardin ezari beharrez, eztiala besterik gogoan haien eraouztia eta desegitia baizik, phaka eztirokien phetcha izigarri baten haier galhatzez. Gisabatez noun, kongregazione- batetako aourhidebat hiltzen denian, deus gabetarik izanik ere, bardin ehungerrena bizi direnek phakatu behar beitie beste phetcha ororeki.

Horik ezin sinhesteko bezala dira, eta haregatik ezta deus egiagorik. Ehungerren hori phakatzen hasi denetik berhala, gasetak, bakhoitza bere gisa, mintzatu dira, gorri haboroek houn hartzez, phetcha kongregazionen galtzetan zelakoz. Bena bakhoitz batek ere eztu hain garbiki erakoutsu lege horrek dadukan bidegabia, noula *le Journal des Debats* den gaseta errepublikanoak. Houna zer zioan gaseta horrek : « Gasetak hanitch

mintzo dira kongregazioner ezari legarraz, haboroak jakin gabetan zertan dagon legar hori...

« Erran dugu, ehi aditzeko gisan, haizu diren edo ez-tiren kongregazionek orok, ehungerrena zor diela aourhidebat hiltzen den aldikal... Houna zer ondorio dukian legiak komentien eretzian, goberniak nahi bezala hari jarraikiten badira.

« Houna hamar mila aourhidetako kongregazionebat, hountarzun eta komentu Frantziako eretze orotan dianbat, (eta hala dira ezi Fraide eskolazaliak eta praoube chahar eta erien zerbutchuko serorak), hountarzun eta komentu haiek balio beitie botian hamarbat miliou. Kongregazione hartako aourhidebat hiltzen deia? Goberniak dio hountarzun haien hamar mila gerren phartiaz jabe zela hila, eta pharte houra badoela beste bederatzu mila bederatzu ehun eta laouretan hogeita hemeretzu aourhide bizieta, bakhoitza aberasten dela, *par voie d'accroissement*, erdaraz dioien bezala, bi sosekobatez edo nounbait han. Eta hori fraide hila Frantzian diren komentu eta hountarzun orotan pharteliant zela erranez. Horra arren 9 mila eta 999 deklarazione kontroliari egin beharrak Frantzian diren bi mila bureuetan beharbada, eta hala ezik ere, zounbait ehun bureuetan segurrik.

« Bena dekharazione horik oro egin ditzen bureu orotan ala batetan, ezta gutiago egia 9 mila eta 999 mutazioneren (edo hountarzun eskuz aldatzeren) deklarazione egin behar datiala; mutazione bakhoitza khos-tako da hamar zantima (erran nahi beita bi sos), eta mutazione bakhoitzari eretchekei izanen ahal da phetchabat, ehunaren bederatzu liberatakoa... Hola baliz, ezlizate gaitza handi. Bena haouche da beltza: Lehen errepublikak egin finantzetako legebat bada dioana, *araouko thallak (edo proporzionelak) hoge liberatarik baizik ezdu-tiela eraikiren, hoge liberaen peko zathia hoge liberaen-tako khountatzez.*

« Lege horren araou fraide bakhoitzak beharko du phakhatu arrajiten zeitzon bisos entako, hoge liberako-

baten bezain beste, erran nahi beita berrogeitabost sos, eta fraidek orok botian 9 mila eta 999 etan 45 sos, emaiten beitu 22 mila eta 497 libera... *Mila liberatako hountarzun baten, hogeita bi mila eta 497 libera phetcha!*

Horra zer ezinaiphaituzko gisaz goberniak desterratu nahi tian komentietan bizi direnak eta kongregazioniak oro. Eta gero haren althe mintzo diren gasetek sinhetse-razi nahi lukie bidegaberik den lege hori, lege zuzen eta bakezkobat dela, hitz gutiz erraitera, orori ehungerrenaren bardin phakaerazteko legebat dela. Zer gezurra!


*Réveil Basque* dena, hatsarrian, hola mintzo zirenetarik zen. Bai, lege propi eta doia, kongregazioner phaka erazten ahal diana, hamar, hogeia, ehunetakoaz ere, zuzen lizatekiana beno haboro, eta hori franko aldiz kongregazionek deus eizterik aourhide hilenganik ukhen gabetarik.

Ere zounbait herritan serorek bere hatiak bahitzera eitzie tie, ehungerren hori ezin phakatur. Beste zounbaitetan jujen aitziniala serorak eta fraidiak deithurik izan dira. Izan bada ere juje haien koundenatzeko han heben, izan da ere ountsatto haien althe jujamentia eman dienik, phuntu zounbaitetan bederen. Hortarik landan behar zukian, ountsala, goberniak bazterrialat eitzie lege tzarra. Bena zounbait denboraz ematuche ondoan, kontrolurrak arrahasi dira kongregazionen theritatzen. Ourthe hounen hatsarrian, kongregazione bat baizik ez aiphatzeko, zazpi aourhide berri hil izanik serora eri soenatzen dutien komentubatetan, *kontroliak ukhen du aski bekhoki galhatzeko laour mila eta hirouretan hogeita hirour libera phetcha, berak hogeitabat libera eta bi sos estimatu zian primantzā batetako.*

Badu bi ourthe hullan harginbelzen bilkhurabatetan haouche erabili ziela *noulaz ehienik eta segurkienik kongregazioniak oro Frantzian eraouzi ditiroien.* Hortarik landan abiatu zen gobernia kongregazionen persegitzen. Zouin da gizouna goberniak egiten, edo kontrolari egin erazten diana ounhets dirokiana?



## ERRELIJIONIA ETA GOBERNIA ; APHEZAK TRIBUNALETAN



**G**ASETA gorriek, ahalak oro egiten batie Errelijionia gal erazi nahiz, fede den herrietan ari dira bethi erraiten behin ere ez tuela Errelijionia orai bezañ ouhouraturik izan. Ikhousi dugu noula erabilten tien kongregazioniak ; ez tutie horregatik ukhuru eizten aphezak. Ezi bi ourthe hountan hetarik hanitch deithu tie tribunalen aitziniala pheredikietan zerbait erranik oraiko legetan gañen. Igaran ourthe urhentzian Jaon *Deheule* kalounjia koundenaturik zen erran zialakoz pheredikubetatetan oraiko gobierniak kargulant gorenak hartzen tiala, judio, higanaut, harginbeltz edo Errelijioniaren etsaietan. Etzen hori egia baizik ; ezi prefetetan berian, erdiak beno haboro higanaut eta judio dira eta oro kasik harginbelz. Erran zian orano katichima etzela haboro haourrer erakasten eskoletan eta aphezgeiak soldado igorraiten dutiela batere haien armandan beharrik izan gabe. Horik oro egiak. Bena noula egiaren entzutiak ezpeitu bethi atse egiten, gobierniak Jaoun *Deheule* koundena erazi du sei egunen presountegiala.

Gerochago zen *d'Audiffret* jesuista zenaren aldia. Haren bekhatia zen zerthako gaichki mintzatu zen eskoletako legiaz, S. Sever den elizan. Jujer ihardetsi du Khiristiaren egiazko zerbucharibatek bezala, eta aithortu pheredikian haouche erran ziala : « Eta orai ene aourhide kharioak, pherediku hounek merechi eraz baleit sei hilabeteren presountegia, uduri zait ene mañotak kharreia nintzakiala hain gothorki edo gothorki, eziez heben eni beha diren anderek kharreiatzen beitutie bere ukharaietako urheriak. » Eta gehienari zioan orano, etziala batere dolurik elhe horik erranik,



berriz ere erranen zutiala. Koundenatu die hirour ehun liberatako isuniala.

Eztira Elizako aitzindariak hobeki erabilirik : Aix deneko archebispoa izan da, diala ourthebat eskaz, kondenaturik hirour mila liberatako isuniala. Orai berri kolonietako aphezakupabat, (Biarnokodena sortzez), kondenatu die phakhatzera bere herriko harginbelzer hamarbat mila libera domaje intres; zertan huts egin du? Bere eginbidia zen bezala eta Aita<sup>7</sup> Sainiaren erakouspener jarraikiteko, erran bere populiari zounbat mene deraokan harginbelzgoak.

Gobernuko Aholkiaren aitzinian ere beste biga kondenatu tie, *Rennes*-eko kardinalia eta *Luçon* deneko aphezkupia, lehena bere katichiman 'ezar erazi dialakoz botzaren gaichki emaitia bekhatu dela, bigerrena erakoutsu beitu ezkontze zibila eztela Elizaren begietan ezkontze egiazkobat.

Goure herrian ere izan da aphezbat Donaphaleuko jujek kondenaturik hirour mila liberatako isuniala; bena Paobeko alkhatetik chipitu die, eta Donazaharreko errektorak eztu phakatu bost ehun libera baizik. Erakourizian pheredikagiatik kardinalen guthuna eta erran llaburzki, Aita Sainiaren araouera, zoun diren oraiko khoristien eginbidiak.


Eta beste zounbat holako ezta izan bi ourthe hoüntan? Orotan aphezen salhazaliak 'dira gehienik kargulantak, errejent eta errejentsak, eta haour tchar deusere aditzen ezten elibat. — Nourk erran liro horietarik landan gobierniak Errelijionia ouhouratzen diala?

Egun aphezen aldia; bihar date beharbada gouria. Bena ezta izitu behar. Ebanjelioan irakourten da : « Dohatsu ountsagatik goitzarren igourtzen dienak haiena beita zelietako erresouma. » Benturaz hanichtto egari beharko dugu. Halaber izan da lehenagoko denboretan eta orai ere hel laiteke. Dezagun sogin Alemaniako katolikoer : hogeitourthez buhurtu dira Bismarck aiphaitiari. Arte hartan zer nahi egari die : zounbat aphez

eta aphezakupue zta egon mentez presountegietan ? Halere azkenian Bismark zeditu. Eta orai higanaout kartielian katoliko tchipiak eta handiak buriak gora dabilza. Hala-ber date goure Herrian ere, behar bezala gudukatzen bagira.



## BOTZ EMAILEN EGINBIDIAK DEPUTATUKAN



**I**GARAN ourthe ko armanakian erran dugu, *Annecyko* aphezakupiak igorri guthunaren arau zer chedetarik ari behar den herriko kountsellukoen izentatzeko. Ditzagun aourthen ber aphezakupiaren erakouspenak deputatien haitatzeko bozkaren eretzian. Ezi, algarreki bizitzeko den eginbide hersienetarik bat da botzaren houn emaitia. Haitatzia deputatu ezta noulako nahi lana : hortik jiten dira odre houna, bizitze behar bezalakoua eta Errelijioniaren gorentzia. Noula arren lothu behar da, botz galthazale bakhoitza zer den ountsa ezagutzeko, eta gero botzaren chuchen emaiteko ?

« Horra hirour aste alde orotarik paperez gaintika etchera heltzen deiziela, eta horra azkenian thenoria paper haietarik baten haitatzeko, eta harekin meriala joaiteko.

« Houna hemen izen bat... Jaon horrek, deputatu haitatia baliz, erran othe liroa bai Errelijioniari traba ezar lirokien lege zounbaiti ? Ounhetsiko othe dutu, katolikoak bere errelijioniaren arauera bizitzetik baztertu nahiz, gobernial eman dutian manu eta chede tzarrak ?

« Hori dela batbederak lehen lehenik gogoan erabili behar diana. Ezi botzemaile khiristibaten eginbide handiena da bere ordaritako izentatzia deputatu bat, eman

ditirokianak katoliko bezala bizitzeko behar diren ehitarzunak.

« Behar da arren hortako ezagutu noulako ziren aitzinetik botz galthazaliak, noulako diren egiazki haien gogoak, egingeaiak. Ezpeita, batzietan segur, uduri lukian bezañ ehi jakitia. Ezi tzarrek berek, bozketako egunetan, elhe eder eta phanatiak merke dutie, eta barnian diena agertzeko ordetan, gordeko deizie elhe chouri eta leñ elibaten pian, souñeko eder baten pian agertzeko houn eztena gordatzen denaren antzo.

« Behar zaie arren hullanetik eta cheheroki sogin gizoun haier, eta ez berere haien erraner, bena orano haien urhats eta egiten dutien orori.

« Houna gizounbat garbiki dioana, katolikoek gaitzesten dutien lege izigarri guzier bai erran gei diala... Etchera ekharriko deizie haren izeneko paper franko;... bena jakin ezazu paper haietarik bat ountzian ezartez, bekhatu mourtalbat eginen duzula eta bekhatu mourtalbat handia, zeren eta ezpeitzunuke zer ari etzinakialako estakururik ere emaiteko.

« Hitz guti aski da erakousteko zer gaichki handia den Jinkoaren begietan halako gizoun bati botzaren emaitia. — Zer arren! Gizoun batek gei balu deputatu izentatuz geroz, zoure etchia erre, edo, zu hil ondoan, zoure haourrak etchetik kanpo ezari, aski zoro othe zinaitekia, gizoun hari zoure botzaren emaitiez, haren deputatu izentatzeko? Ez, bichtan da, ez zinioke holarikorik gogoan. Eta gizoun batek nahidianian, eta dakiularik nahi diala zouri eta zoure haourrer zeluko bidia gal erazi, zu eta zoure haourrak zelutik kanpo ezari, zoure botza eman zinero gizoun hari? — Ez hori ezin daitekena da; hori gaichki laiteke.

« Bena bekhan agitzen dira gaizak hain garbiki; holako gogo gaichtokoak echabakiago ari dira usian.

« Houna arren beste deputatu geibat. Harek egin guthuna, eta bere izenareki igorri deizuna, franko ountsa mintzo da. Dio Errelijionia errespetatzen diala,

ahal dutian laguntzak ardietsiren dutiala behar ordian, elizen eta aphez etchen egiteko, bai eta haien arrimatzeke. Ez laiteke hobeki mintza. Bena haborokin haou erraiten du : nahi diana dela bakhoitza bere alde egon dadin, erretora bere elizan, eta mera herriko etchian. Bestalde dena orano, hañ ountsa mintzo den houra, zerbait da eta ountsa ikhousirik bere herrian; hanitch gizoun arrounta da; bidetan bera lehenik eta burhas, koladaz ari da ikhouston dutian botzemaile guzier... Zer nahi derozu haboro galthatu deputatu gei hari, eta noulaz holako gizounari botza ez eman ?

« Uguriozu amiñibat. Badirade nahi nutukianak lehenik jakin. »

Izanik da lehenago deputatu, eta ordian nountik eta noula ari izan da? Lege edo legegei gaichtoer bai erranik baliz, gero ere bardin lizate, eta bekhatu mourtalbat egin ziniro hari botza emanez. — Ezpada orano deputatu izan, edo lehentze botzak galthatzen tu, edo bigerren, heren aldikoz. Aitzineko aldi hetan edo bera zen edo laguneki (noula zen bozkatzeko mouldia). Laguneki zen hartan, zer eta zouñ aldetarat ziren lagun hourak, Errelijioniaren adichkide edo etsai? Horik oro ikhertze-koak botza eman aitzinetik, gaichki ez emaiteko.

« Badirade, badakizie nik bezala, jente houn batzu, bere botzak emanik gizoun bati, zakielarik goure sinheste saintiaren etsaia edo etsaiekilakoa zela. Galthatzen baderozie zeren gatik holako lana egin dian, badukezie arrapostu : « Segur, hanitz bihotzmineki eta gogoz aitz, eman diot gizoun hari ene botza. Bena zer hobe da? Behar dizu herriaren hounaz ere orhitu. Bestiak, Errelijioniaren althe zenak, deusere etzukian ardietsiko prefeta edo governia ganik. Houneki segur gutuzu goure herriko lanak, goure bide hasiak, goure eliza ere urhentuko direla. »

Etta zounbat beste gisatako estakuru eztie hanitchek bilhatzen utzulbotz emaiteko?

« Zer egiten die hola ari direnak? Zer egiten dien? »

Emaiten tie lehenik bizitze hountako hountarzunak, bethiereko bizitzekoak ondotik. Holako botzemailiak jarten dira bere arimen galtzeko menian, oustez zer bait irabazi badukiela, edo berentako, edo herriarentako. » Bena libru saintiek dioien bezala, zer derio gizounari mundu guziaz jabetzia bere arima galtzen badu ?


Horik aski dirate egiazko khiristien antzo botza eman nahi dukientako. Houna urhentzeko, Bayounako Jaon Aphezkupeak zioana bere azken gorozumako guthunian : « Zien khiristiazko beithak erakoutsiren deizie noula beharko duzien egari oraiko gobernu mouldiak eretchekiten deizien photeregoa bouchinkañaia. Zuzen horrek zientako daduka kontzentziako sortha izigarria... Gogo emazie botza, gorde izanik ere gizounentzat, eztatekiala gorderik Jinkoarentako. Eginbide hersibati ukho egitia lizate botzaren ez emaitia, eta legiaren eskarniatzia lizate ouste ukheitia behar dela botza ema zoure khiristiazko kontzentziaren aitzia edo kontre)... Ountzian ezarten tuzien paperak zabalturik lehentze lurrian, berriz ere zabalturik dirate heriotziaren ondoko jujamentian. »

[Ezta deus erakouspen horietan oraiko gobernu mouldiari aitzia denik. Halarik ere *Réveil Basque* denak hanitch gaichki hartu zutian, lehentze Uskal herriko aphezbatek Jaon *Isoard* denaren guthuna inprima erazi zianian. Aldiz eztu hitz bat ere erran goure Jaon aphezkupearen guthunaz. Zer erran nahi da hori ? Araouz *Réveil Basque* dena eztela alegatzen dian bezain beste Errelijioniaren althe.]





## ORAIKO ESKOLAK



**H**OUNA, gehienen baimenareki aphez laphourtar-batek egin dian kartillabatetarik idokirik, zounbait erakouspen eta chede oraiko eskolen eretzian.

Badira bi gisitako eskola : hounak eta tzarrak.

**ESKOLA HOUNAK :** Ezta erran beharrik zouin diren eskola haietan, haourrer erakousten derie, eta ahalaz maitha erazten, khiristi legia. Ezta ezpere haizu halako eskoletarat haourren igortia, bena orano haietara behar lutukie ahalaz aitama guziek igorri.

**ESKOLA TZARRAK :** Eskolabat tzar izan daite : 1<sup>ik</sup> Jinkoari aitzikoa delakoz ; 2<sup>ik</sup> Jinkorik gabe delakoz.

1. Jinkoari aitziko eskolak. Halakoa da eskolabat, edo librietan, edo naousietan, edo lagunetan, haurrek ikhouston edo entzuten badie fedia khordoka edo arima theiut deriekien zerbait.

Halako eskolabatetara, sekulan etzaie haizu aitamer haourren igortia ; sekulan, behar balitz ere, ez igorritz, ogia eta bizia galdu. Elizak hori goratik erakousten du ; eta ehi da ikhoustia zer gatik. Oro beno haraintiago dira arima eta salbamentia ; eta zerbait arimarentako, nahi eta ez, galgarri denian, zer nahi khostarik ere, chahu bazterrialat eitz beharda.

2. Jinkorik gabeko eskolak : Eskolabat Jinko gabekoa da han deus ez Errelijiniaren althe, ez aitz denian. Ezta han Errelijioniaren aitzikorik deus entzuten, ez ikhouston, bena althekorik ere deus.

Elizak holako eskolak gaitzesten tu, eta debekatzen aitamer haietara haourren igortia. Houna zer zioan Aita Saintiak, Frantziako aphezkupier, 1884<sup>an</sup> igorri guthu-« nian : Elizak bethi garbiki gaitzetsi dutu Errelijionerik « gabeko eskolak, eta jakin erazi derie ahala egin behar

« diela, gaiza orotako haraintiena delakoz, halako esko-  
« letan haourrak ez eizteko.»

\*  
\*  
\*

Bena ezpada haizu Jinkoari aitziko eskoletarat haourren igortia, zer nahi khostarik, Jinko gabekoetarat igortia haizu izan daite zounbait aldiz; houna nouiz eta noula : 1<sup>ik</sup> beharda arrazubat aski handi; 2<sup>ik</sup> beharda lehiatu holako eskolek haourren bihotzian eizten dian hutsa ahalaz behatzera.

1. Orai artio badira bi arrazou, bai Aita Sainiak erranik, bai Eliza gizoun argitienek erakoutsirik :

Lehenekorik, herrian edo hullanian eskola hounik, khiristirik ezpada, ordian eskola hounbatetan haourren ezarteko ahala ezten aitamer, haizu zeie Jinkorik gabeko eskolalat igortia.

Bigerrenekorik, Jinko gabeko eskoletan haourren ezartia haizu zaie kargulanter, hala ez eginez bizitzekoaren galtzeko menian jarten badira.

Horietarik kanpo besterik badaite ; bena ezagutzeko arrazoak aski handi direnez, aitamak hersatu beharko dira Eliza gizouner.

2. Eskola jinkogabekoaren hutsa bethe behar da. Hasteko, aitamek izan behar dira erne, jakiteko eia utchuraz eta izenez Jinkorik gabeko den eskola, eztenez Jinkoari aitziko bilhakutzen, edo librien, edo naousien, edo lagunen eretzetik.

Gero behar dukie, eskolatik kanpo, haourrer khiristi legia fountsez ikhas erazi, eta ahalaz maitha erazi.

Horra zer arrazou handi eta zer artha berhezi beharko diren, haourren Jinkogabetako eskoletarat igortera haizu izateko. Hortarik ageri da zounbat hugu dutian Elizak eskola hoiek, eta zer bihotzmin, zer antsiareki, aitama gaichoek, ezin bestian, haourrak ezari behar tien eskola hoietan.

\*  
\*  
\*

Bena zounbait herritako eskoletan othoitzak egiten tie, eta katichima ere bai erakousten. — Ezta halere

haizu eskola haietarat haourren igortia. Hori beita etsaiak egiten dianbat, aitamen enganatzeko eta haourren biltzeko. Halaz bil balitze herribatetako haourrak oro, ordian naousi berekin, edo bestebatzieki, adiolirate bai othoitzak, bai katichima. (Eta bestalde esta errenten lana, berheziki oraiko hanitch bezala badira, katichimaren erakoustia).

Fededun egiazkoen eginbidia, eskola hounen edo khiristien eretzian, da haien maithatzia eta laguntzia.

Erakoutsi behar die eskola hourrak maite dutiela, haietan bere haourren ezartez; eta behar tie laguntza haientako emaitzez ahal diena.

Eta ez ouste ukhen, eztela bekhatu eskola haientako ez emaitia, ahal delarik. Bai bekhatu da, bekhatu handi. Ezi dio Aita Sainthiak, « aphezakupiek khiristier jakin « erazi behar deriela, handizki huts egiten diela bere « eginbidiari, ahal delarik, ez padutie behar diren bidiak « hartzen eta behar diren gastiak egiten, eskola katolikobaten ezarteko. »

Ez daiteke garbikiago mintza.

Arren, oro goure beithan sargitian; eta guziak, Jinkoaren graziareki, lehia gitian goure eginbidiari jarraitkitera eskolen eretzian.

Hortan baratzen da aphez laphourtarraren kartilla. Dugun hitz bat haboro. Hortaratu behar gutu orano gobernutiar gaseta egile aiphatienetarik batek berriki zioana: « Behar dugu artha handireki herrietako eskolotarik kanpo etchekei Errelijionia, zeren haietan naousiak eskietan bezala beitu haourren sinhestia, eta sinhesta hora nahi bezala erabil beitiro. Eztu hortako Errelijioniaz gaichki erabil. *Bena Errelijionia bazterrialat eitziq, naousiak hountara eraziko tu haourrak, sinhestera ezlela hora gaizabal hain harainti, hain beharra dena; hora gabe izan daitiala behar bezako gizoun eta behar bezalako frantzés. Holaz, emeki, emeki, bortchatu batere gabe, naousiak hurruntuko dutu haourrak Errelijionetik.*



Eta hortako hainchuchen eginik izan da eskoletako legia. »

Horra egia, gorribatek erranik eskoletan gañen ; eta badakikie ziberoutar khiristiek, behar ordian, zer egin behar datekian.



## LIGIKO ZUBIA




**L**IGIKOEK bazien aspaldian zububaten beharrunia : bena ihour ere etzen atrebitzen lan hari lotzera, gunia bacha eta gaitz zelakoz. Behin batez hatik, beren artian igaran zien behar ziela zubia Lamiñer egin erazi. Deithu zutien arren herriala, eta erran bere ezin bestia. Lamiñek hitzeman zeren zubia eginen ziela harri lanthuz, biharamen gaian ollarrak khantatu beno lehen, bena galtho eginen zerenaren pian. Ligiari batek erran zeren : « Zeren galtho ziradie ? » Eta Lamiñek arrapostu : « Ligiko neskatiletarik ederrena nahi dugu zubu egitia- ren sari. »

Nahi bada bihotzmin handia emaiten zeren neskatileta eder haren galziak, halere houn hartu zien Ligiarek Lamiñen galthoa. Hitzartu bezala Lamiñak lanian hasi ziren biharamen gaian.

Guziek dakien bezala, neskatileta ederrek badie lekhu orotan arrakasta. Ligiko harek ere bazian bere maite khorte egilia. Maite houra, beitzakian zer zabilan, jouan zen erran delako gaian Lamiñen lankhiaren khantiala. Ikhouston zutian latzeriareki denbora erdi gabe lana bertan urhentzera zouela. Han zen so, igitu gabe, izerdi hotzbatek harturik, zer egin ez jakinian, nouiz eta zerbait gogouala jin beitzeron.

Jouan zen ollaoutegibati buruz, emeki hanko bortha zabaltu, eta hantik bere eskiez jo zian bizpalaour zafila,



LIGIKO ZUBIA ETA LECHANZUMENDI

ollarak khantatu beno lehen hegalez joiten tianak bezala. Ollarra iratzartu jaouzi bateki, oustez araouz beranta zen, eta hain sarri egin zian : kukuruku !

Ordu zen. Lamiñak azken harria altchatzekotan ziren ; bena entzun zienian ollarraren khantoria eitzien erortera harria houran behera, eta herots handi bateki tarrapataka eskapi, oihuz zioielarik : « Dela maradikatu bere khantoria thenoria gabe eman dian ollar hori ! Geroztik, dioie zaharrek, ez harri ourthouki houra ez besterik eztu ihourk,erek hutsune hartan ekhura erazi ahal ukhen.


..

Beste gisaz khountatzen die zounbaitek : Lehenago Ligiko zaharrek zububat etziroien egin uhaitzian. Zubu houra egin nahi zien gunian baziren hirour Lamiña Gillen deitzen hirourak. Erran zeren Ligiko gizoun bati haiek eginen zerela harrizko zububat, Jondane Johane mespera gaian, nahi bazeren eman bere arima saritako. Eta hitzian baratu gizouna. Erran den gaian hirour Gillenek inkantatu zutien ollarrak oro eta gero hasi ziren lanian, algarri zioielarik, harrien emaitian : « To ! Gillen ; indak ! Gillen ; harzak ! Gillen. » Zubiaren urhentzeko azken harria eskian zien nouiz eta ere, ollo korokabaten petik, arraotze kuskia haoutserik, chitchabatek kukuruku egin beitzian. Ordian hirour Gillenek erran : « Adio goure saria ! » Eta ourthouki zien azken harria uhaitzialat. Geroztik harribat ments umen du zubu harek.





## LABORANTCHA



### I. — Uztak 1892<sup>an</sup>.

**O**URTHE bakoitzak dagoka laborariari bere eskarnio eta antsia phartia : guti da ouste etzen zerbait gabe.

1891<sup>an</sup> bazen negubat luze eta borthitzenetarik ; igaran azkena hain da idor izan baranthailatik aitzina, noun ezpeizien zounbait eretzetan holako idorterik ikhousi laou etan hoge ourthe hountan.

Idorte handi horrek ezdutu eitzi lanthariak goihentzera, eta hanichtto kartieletan ezta izan belhar usatiaren herena edo laourdena baizik. Bazka eskazak, ohi bezala, merka erazi tu kabaliak, eta nekez haziko tie belhar berrietartino.

Ogi, garagar eta zekale lastoa ezta ere handitu ahal izan. Ogi lastoa abantzu zehebatez beste ourthez beno khutoago zen, eta bedatseko olho eta garagarrena orano deithoragarriago, hañ beitzen khuto eta desbardin.

Janharitako eta sukre egiteko betarabak tchar ziren eta haien uztan ments handia izan da : edo hazia etzen burnatu, lurraren idorregiz, edo burnatu direnen zañak etziren orano loditurik, buruila hatsarrian usatiaren erdia beno haboro. Geroztik hatik, euri hanitch izan delakoz hazitu dira eta edertu.

Luserna, treffa eta beste ereitziak gaichki erabili tu idortiak. Bedatseko izotz berantek erre tie lanthare chugunak (edo tendriak), eta eihartu etzirenak, aitzina joan dira, ahal noula ; lehen ebakaldia tchar bazen, bigerrena eskaz izan da, euri ez eginez.

Hainbeste ogen bazker egin dian haro horrek lehia erazi eta aitzinatu du uzten eta ekhoitzen (fruten) zorhitzia. Ogiak bildu tie haro hounareki eta lastoa llabur

izana gatik, buriak eder ziren eta bihiz betherik, bai ogienak, hala noula garagar eta olhoenak.

Laborantchaz mintzo diren bi gazeta, bata *l'Écho Agricole*, bestia *Bulletin des Halles* direnek, bildu tie cheheroki ogi uzten berriak aitzineko ourthez bezala. Bi gaseta hen araou Frantzian eraiki die 1892<sup>an</sup>, 102 miliou 409 mila eta 250 ektolitira edo zaku ogi. Bena noula azken ourtheke ogiak phezu beitu 78 kilo, erran nahi beita ohi pheziaz goiti, eraiki uzta 107 miliou zakuta-kobat, ordenariokobat bezañ harainti da, bihia ezinago houn delarik bestalde.

Frantziako jenten ourthebatez hazteko ments lizate holaz 15 miliou ektolitira ogi; bena atzerrietarik bada hanitchez haborosarthurik, bost liberako thalla aphaltu zien artian; ageri da ogiaren oraiko prezio aphaletik. — Ogi uzta ezta izan chit houn departamentubatetan baizik, houn hamazortzitan, eta aski houn bestetan. Bethi bezala gobernialak dio igaran ourtheke ogi uzta izan dela bi gaseta gorago aiphatiek erraiten dien beno handiago; prefetek eman berrien araou balizate 109 miliou 264 mila 421 ektolitira edo zaku ogi, egiten beitie 84 miliou 837 mila eta 320 ehun kiloko kintale. Bena *l'Écho Agricole* denak dio harek errana dela chuchen, eta 1891<sup>an</sup> ere gobernialak hatsarrian erran ondoan ourthe hartan izan zela 82 miliou zaku, gero aithorthu ziala etzela izan 77 miliou baizik, hori beitzen ber gasetak eman chifria. *L'Écho Agricole* denak dio orano, ber aithormena eginen diala gobernialak 1892<sup>eko</sup>.

Eztakie orano zerchko garagar eta zekale eraiki den, bena segur da uzta artekobaten petik datiala. Olho guti da, bena hanitch baraturik bada aitzineko ourtheke soberakinetik.

Autriche den erresoumako gasetek dioie izan dela 1892<sup>an</sup> mundu orotan 775 miliou ogi zaku, bost miliou aitzinekoan beno haboro; zekale aldiz 440, usatu bezalatsu.

Kartiel bihi eskaz eraikizalek ments dukie 120 miliou

zaku; bena beste kartiel beraien beno haboro eraikitzen dienek, badie 139 miliou zaku saltzeko, badelarik orano aitzineko ourtheke zerbait ondar. Ezta arren handi ogiaren hain merke izatia, eta goberniak ountsa beno hobeki egin liro atzetik sartzen diren ogier ezar baleza sei edo zazpi liberatako phetchabat, oraikoaren ordari, eskaz beita. Aldiz buruilako bigerren astian, *l'Indépendant* eta *l'Avenir* direnek, (departamentuko bi gaseta errepublikano gorri), izkiribatzen zien idoki behar zela bost liberatako phetcha, eta hori zaku ogia hamazazpi libera baizik egiten etzgianian! Laboriaren adichkide eijerrak! Zer! bost liberatako phetchak daduka orano ogia den heñ aphalian, eta nahi lukie idok erazi? Behar ere badi-rade nounbait orano gizounak, gaizak hobeki ikhousiz, laborariaz orhitzen direnak.

Ziberoan, uda idor izanez ogi bihia chehe baratu da, bena lastoa usu beitzen, uzta nasai zen; den bezala bihia phezu eta houn da. — Lur utzulien boustitzeko doia lancer egin dialakoz, gehienik bortu ondoetan, arthoak ountsa hazi dira; aspaldiko ourthetan etzien hañ ederrik ikhousi. — Ilhar hazi ereñak oro sorthu ziren eta begiratu, eta ezinago eder bilhatu. Artho alhor hanitch tharta bezala ziren, ilharrez khurutchela. Haroa bethi althe ukhen beitie gaintika bildu die.

Igaran maiatze leheneko izotzak gal erazi zian, apha-lunetako mahastietan, broka hanitch. Kharroak hounki etzutianek, ountsa abiatu-rik, emanen zien mahats ount-satto; bena agorrilako 16, 17 eta 18<sup>an</sup> egin tian bero ezinago gaitzetan, ekhiari phara ziren morkhoak erre tchispiltu-rik baratu dira. Zouñ eretzetan dioie uzta herrenbat galdu dela, bestetan laourdenbat.

Sagarrez izan da gaintika, ostoa bezañ beste, hanitch lekhan. — Bortu ondoetako gaztañatzek badie ekhoitze hanitch; bena Maolez peko herriez eztaite halaber erran, eritarzunak zuhaintze haboroak jotialakoz eta ostoa goizegi eihartherazi. — Eritarzunari buhurtzeko

houn lizate egitia erran duguna 1891<sup>an</sup> ourtheko arma-  
nakian.

Lursagar ederki izan da orotan, eta begiratzeko houn  
utchura. Intzaortzek, bagoek eta haritchek badie ere  
ekhoitzez gaintika.

Hitz gutiz erraitera 1892 den ourthia houn izan da  
laborarien; bena beldur izateko da, prezioen aphalegiz,  
eztezen ukhen mouzkin handirik, uztak zounbat nahi  
nasai izanik ere.

## II. — Bazka berribat.

Nourbaitek kabale hazlebati erran baleza badela  
belharbat, ourthian sei aldiz ebakiteko phasta emaiten  
dianbat; behin ereñ edo lanthatuz geroz, sekulakoz  
dela, eziala haboro ereñ beharrik, eta berrehun eta  
laouetan hoge mila kilo bazka berde emaiten diala bi  
ithegun eremutan; horren errailia nekez sinhetsirik  
lizate. Eta haregatik egia da. Erran belharra deitzen die  
frantzesez *la Consoude rugueuse du Caucase*; uskaraz  
erran ahal laite *kounsodia*. Belharbat da behiek, arresek,  
zamari bohorrek, ourdek, behin jaten hasiz geroz, ha-  
nitch maite diena. Hartarik jaten dien behiek emaiten  
die eznebat ountsaz hobia eta gizenago, eziaz eta zahiz  
eta artho irinez hazirik direnek. Haboro dena kabale  
mutak oro arte llaburretan gizenterazten tu kounsodiak  
eta ez beste bazka berdek bezala zañhiltzen eta ahul-  
tzen.

Zer nahi lurretan ountsa jiten da kounsodia, lurra  
barnatik erabilirik den ber eta zinez goroztaturik; lur  
ezti eta bousti amiñibat dena etzaio gaitzi, eta holako  
lurrian segur da uzta nasai eta ederbat. Belhar ondo  
bakhoitzak metra erdibat eremu lur hartzen du, ostoen  
eta erroen ountsa hedatzeko. Derragun ere, lurra gizen  
den lekhian lanthatzen bada, metrabat tregoatan beharko  
tiela ezari ondoak.

Bazka berri haou Frantzian guti ezagaturik da; mintzo  
bagira hebën, erraiteko da goure departamentien hant-

che hebentche borogatu diela, bai eta goure Ziberoan ere, Arueko jaoregian, eta ikhousgarri dela belhar horren nasaia eta ederra.

Lanthatu nahi dukientako erranen dugu zerlan emaiten dian kounsodiak, noula eraikiten den, negu garratzen acholik badianez, eta lanthatu ala ereñik izan behar dian.

Luzegi eta khostegi lizate kounsodiaren ereitia; hobiago eta llaburrago da haren probedi eraztia oundo zaharretarik, zañ oundoetarik thaliken idokitez, eta haien lanthatzia metra erdibatetarik metrabatetarako erran tugun tregoetan. Behin lantha eta orozbatkoz da, bena goroztadura hounez behar die ondoek enterteniturik izan.

Nouiz nahi lantha daite belharra, salbu negu minian. Lurrak barnatik utzuli bebar du, belhar gaichtoak arthareki idoki, eta ountsa goroztatu. Larrazkenian lantha, eta ikhousiko da martchoko lehen egunetan agertzen belharra, ostoak berde, arpak zabal eta zehebat eta erditara drano luzatzen zankhoa.

Ordian date lehen ebakaldiaren egiteko thenoria; eginen da dalliareki, edo aldi bakhoitz, edo hobekiago, beharruniaren grado, faroucha egiten den bezala. Holaz, lehen ebakaldia urhentu deneko, bigerrena hasi ahalko da. Ikhouston den bezala, kounsodia berderik jateko da; halere bedakatu eta idorterazi ondoan, kabalek hañ maite die.

Belhar horrek beroa maite du: houn date arren, negian ondoen goroztatzia eta gero aitzurraz oundostatzia. — Eztate ahatzi behar barnatik lurraren erabilitia, eta ountsa arhatzia. Azkenian eginen tie erran tregoetan ziloak zehebat eta erditan barna, zilo hetara goroztadura emanen, eta gañen, zañ lanthariak ezariko chutik, phunta mehena pialat; hortarik landan, bi edo hirour erhi lodi lurrez thapatu beharko die ziloek. Lurrez lodikiago thapatziak ogen egin liro bertan sortziari; lanthatu ondoen lephoek lur achalaren hullan izan behar



dukie. Chahutarzunik handiena lanthagiako lurak beharko du, erran nahi beita, belhar gaichto orotarik libratu izan. Lanthatu denetik eta lehen larrazkenian lurak golde nabarrez utzuli behar date, belhar ondoak ahalaz hounki gabe. Ountsala ere, ezlizate gaichto jorratzia ebakiten den aldikal.

Azkartzeko eta erroen hedatzeko behar dukie zounbait denbora lantharek; eta lehen ourthian ezte emanen hirour ebakaldiz goiti. Bigerren ourthetik aitzina, sei emanen die, eta behar bada bat edo biga haboro, lurra beraourtarik bousti delarik, haroa hanitch eder balinbada. Kounsodiaren hoununiak borogatu nahi dutukienek aski dukie ithegun erdibat edo laourdenbatetan belharraren lanthatzia; etzaie segur dolutuko. Lanthagiaren geroan hedatzeko aski dukie lehenik ezari ondoetako thaliken idokitia hurrunago lanthatzeko.

Erran dugun bezala, Arueko jaouregian badate zañ saltzeko nahi dukianarentako, berrehun eta hogeita hamarrak sei libera eta bost sositant.

### III. — Ogien moundolletan ezartiaz.

Ezta aski lurren ountsa erabilia, ountsa goroztatzia eta ountsa ereitia. Behar da orano ohartu uztaren ebakitari eta sartziari.

Ourthe bousti eta euriziez berheziki, arrahent izan behar da ogien burnatzera ez eizteko.

Noulaz ogiak alhorrian egonendira gastatu gabe sartzeko thenoria jin artino? Hortan gañen zounbait aholku eman dugu armanakaren irakourzaler diala hirour edo laou ourthe, eta erraiten gunian ogiek, sarthu aitzinian moundolletan egon behar diela alhorrian; hola dagiela Frantzia barnian, noun ere laborantcha aitzinatienik beita eta hobekienik erabilirik. Frantzia barneko houn dena zertako elizate Ziberoan ere bardin houn?

Goure Arballan usatzen die ogiak ebak, eta eskutetan espallt artino alhorretan zabalik eiztia, gero azaout eta barneat sartzeko. Hori houn laiteke ihour haro hou-

naz segur baliz; bena ourthe eurizietan (eta aspaldi hountan usiegi hala dira) gisa hortako ogikak lan handia daduka bedakaz; ere bihia eta lastoa eztirate sekula hañ zorhi noula ogi moundolletan egonarenak.

Derragun arren berriz ere noula den ogien moundolletan ezartia. Behar da ogiephailen ondotik ogia behala azaotu; gero laou azao har, eta antchu gisa algarren aitzi, tchuti ezari, azao uzkiak algarganik baztertucherik, hersakibatez burien ondotik laouak esteki. Gero hartzen da beste laou eta ezarten hourak ere tchuti estekaturik direner arrimu eta haien artian. Azkenian bederatzugerren azaobat buruz behera sartzen zaie chapel baten antzo beste zortzier. Horra noula egin behar dukien moundollek, eta lanak ezteraoke despendio handirik.

Ogiak gisa hortan ezaririk eztuke euriaren acholik; bihia eztiki haziko da eta ogi uzkiak belharrak idorturen sartzeko heña datekianeko. Badakigu laborari berrogei mila azao holako moundolletan ezarten dianik, eta ogika aste bakhoitz egiten beitu. Euria heltu zaioa? Ezta ekhurugaizten bestiak ogi bedakak eskarniaturik diren ordian. Houni berbera gogoeman behar da, ogien boustirik ez ebakitia gisa hortan ogikaren egiteko. Nourberak ikhert dezala berritzapen hori: segurtatzen derogu ogi bihian irabaziko diala eta lastoua kabaler jatera emaiteko eskutan egona beno hanitchez hobe datekiala.

Beste ekoizpenbat ere deraoka ogien moundolletan ezartiak: ogiephaiten hasten ahal da eztchit zorhitu gabe. Haboroek badakigu lastoa zolatik zorhitzen dela, buria beno lehen, eta, lastoa idortzen hasiz geroz, ogibihia ezziala lurretik deusere idokiten, zounbat nahi hountkallu izanik ere; bena noula sapa ezpeita lastotik orano ebak ordian osoki jalkhirik, hartako du lastoak moundolletan ezari behar, hounen gatik eta sapa harez balia dadin ogi bihia, emeki eta eztiki zorhitze ondarraren egitez. Aldiz ogi eskutetan dena lurrian he-

dallo ekhi saminak idortzen du, chimaltzen, eta lastotik jin behar lekion suhatsa, bihiala heltu gabe galtzen.

#### IV. — Sagar ardouaz.

Ardouaren kharioak sagarrarena bazter hanitchetan harainti erazi du. Aourthen sagarrez gaintika zelakoz Ziberouko etchalte haboroetan, egin da sagar ardou eta Uskal herri orotan ere bai. Houna ardou muta horren egiteko chede zounbait, haier jarraikitia balio beituke ardouaren houn eta bethegin ukheiteko.

Sagarrak biltzian zorhiturik izana gatik, ezdu orano bilhaturik ukhen behar lutukian hoununiak oro ardouaren behar bezalako egiteko. Sagarra bil, eta berhala egiten den sagar ardouak ezdu tchestu handirik eta ezta ere houn luzaz begiratzeko. Sagarrek bildu landan behar dira egon zounbait aste zehebat eta erdi lodiko athetan, eretze idor eta airia kourritzen den batetan. Halaz gozoz hobeturen dira, eta sukria emendaturen zere, harek beitu ardouari indarra emaiten. Nouiz ere ikhouston denian sagarrek eztiela haboro athetan irabatzen, ordian behar da ardouaren egitera abiatu.

Sagar mutak oro eztielakoz batetan hountzen, ountsala behar laite muta bakhoitzarentako berde tchestia ezaba artekan uguruki, eta ez sekula sano diren sagarrak nahasi hiroturik direneki. Hoiek egia bada ere jus haboro badie, bena indar gabe, eta hartarik egin ardoua, bardin indargabe bilhakutzen eta begiratzeko ez houn.

Zer egin behar da sagar graspez? Ardou egiten den eretze orotan galtzera eizten die edo, gaichto dena, gorotzareki nahasten. Graspak ezdu deus hounik emaiten gorotzari nahas : aldiz zuhaintze ekhoitze (edo frutu) dunentako lehen lehen hountkallia egiten du, suthondoko erhaoutsareki nahastez. Behar da bost zaku grasparen zakubat erhaouts. Ezarten die gorotz hora zuhaintzer zounbait hilabeteren burian, bedats aitzinetik.

Baliatzen ahalda orano graspa aberer jatera emaitetz. Hartakoz beharko da nahasi bihi chehekatieki, edo

zahiareki, edo ogi ahotzareki, eta gatz ezaririk. Begira daite luzaz ezkaratzetan barrika zounbaitetan ezarten delarik. Dioie hola adelatu graspa monturek hanitch maite diela.



## ISTORIA ETA ERASI

**B**HOUNTU ZAHAR. Egunttobatez, Salbazalia bazoelarik Phetiriki, bathu zien emaztia bilhakan debriareki. « Abil Phetiri, dio Salbazaliak, abil, eta algarreganik berhez itzak. » Phetirik laster egin, eta ahalaz hobekienik naousiaren maniari jarraiki zen. Bena ihoulaz ere eztzutian berhezi ahal ukhen. Bathia hertuchetik, hartu zian bere ezpata debriari lephoa mouztu nahiz. Bena noula ezpata borthizkiegi erabili beitzian, bier, debriari eta emaztiari, buriak mouztu zeritzen. Salbazalia hañ chuchen heltu zen: « Hori duk, erran zeron, egin dian esgarajia!..... Har itzak buru horik eta bakhoitza zen lekhian ezar. » Hain zen Phetiri ahalkez hourturik eta izeriturik, ezari beitzian debriaren buria emaztiaren lohin (edo khorpitz) gañen, emaztiarena aldiz debriari eman. Dioie geroztik diela emaztek buria hain gaichto. Ezpada egia.....

*Ehortzetabatelarik landan.* \* \* « Bai segur nundia, zioan hilaren arralhaba gaztiak, baldi bati buruz; aitacho zelialat jouan da begikoak gabe. »

\* \* Gaichkigilebat urkhabilia igaitera abiaturik zen. Jutziziaren izkiribañoak sententzia irakourten zialarik, eta khountatzen haren gaizki lazgarrienak, berak oro aithortzen zutian, eta haboro ere egin ziala: « Ebatsi du, su eman, hirour etche ilhaintu. » — « Egin sordei, nik, erraiten deizut. » — « Itho bere alhaba, phozoatu bere

suhia. » — « Bai! sordeik egin dit, sinhets nezazu, ehunetan sordeik. » — « Bena arren zer egin duzu? » — Gaichkigiliak ihardetsi: « Zer egin dudan sordei? Eta, ene buria hatzamaitera eitzi! »

Gizouna aberiaren bardin bada, ezpadu arimabat bethi iraitekoa ezten gaichki mintzo kriminela. Eta zer ihardets lירוie oraiko erakouspen berri iraouzalek?

\*  
\*\*

Bestorduz bazen jale handibat, seiiek bezainbeste behar beitzian. Egun batez joan zen gizoun hora Henri IV<sup>en</sup> aitziniala, oustez eta printzè houn eta handi horrek eginen zeron batzarri houn, eta emanen behar-baba zertzaz sabela bazka.

Errege jakinturik beitzen gizounttoaren aiphia, galthatu zeron egia zenez seiiek bezainbat jaten ziala: « Bai, Sire, hala duzu, » harek arrapostu. Erregek aitzina: « Eta seiiek bezainbeste lan ere egiten duka? » — A! Sire, ene adineko eta indarreko beste gizounbatek diroana egitendit. » — « *Ventre Saint-Grise!* juratzen dialarik erregek, hi bezalako sei pandart baliz ene erresouman, bertan gosia nitek, eta seiak urkha eraz nitzakek! lekhia hount ezak lehen bai lehen ene bistatik! »

\*  
\*\*

Gizoun totots batek hora uduri etzen bati ari zen trufaz beharriak handi zutialakoz: « Hala duzu, erran zeron bestiak; bena ere, aithor ezazu zourriak tchipiegi direla astobatentako.

\*  
\*\*

1848<sup>an</sup>, Ziberouko plazabatetan solaz handi orok: *Biba liberté, égalité, fraternité!!!* Herriko errejenta aserik azkenekotz entzutez ber oihiak erraiten dero khantian zian mouthikobati: « Badakika zer erran nahi den liberté, égalité eta fraternité? » — « Eznik, ez. » — « Horri erran nahi duk, aberatsak olloua thipiñan, guk aldiz ilharrez zopa. » — « Alaturik goihena! arren ezti nahi batere liberté, égalité eta fraternité. » Etzian haboro ahoua zabaltu.

\*  
\* \*  
\* \* \*

Bohamesa uduri emazte belcharan eta gothorbati galthatzen zeren behintto batez, Garindañeat buruz bazabilarik Maoulen eske izanik : « Nounko zira? » Emaztiak hain sarri ihardetsi : « Ah! Jaona, nounko nahi; gaiak hatzamaiten naian lekhuko. »

\*  
\* \*  
\* \* \*

Ziberoutarbat jouaiten zen behin bortuzale Aphani-zeat, berotucherik, astobat aitzinian bere hatu eta jatekoeki.

Bachanabarreko mugan, Manechbat bathu zian, erran zerona : « Adichkidia, zoure asto hori egarri da eta kolpe bat edan lezake. » Ziberoutarrak astoari : « Icho ! astoa... icho !.. »

Astoa ukhuru, eta naousia hullantu zeron beharriala, uduri zerbait elhesta bazien algarreki. Gero, manechari buruz unguraturik erran zeron : « Erran diot ene astoari nahi zineikola kolpubat eman edatera; eskerrak deritzu eta igorten deizu zihaurrek edan dezazun, bardin astobatek edanik datekiala.... Arri astoa ! »

\*  
\* \*  
\* \* \*

Etchezañbat joan zer merkhatiala bere emaztiareki. Alhabak, abiatu gabe, erran zeron zer behar zen ekharri hiritik, sukre, olio, ziho eta besterik orano. Ulhuntzian ostatutik jalkhirik, orgak adelatu eta etcheat buruz abiatu zen. Bidian zelarik, bere buriari ari zen : « Ez dutuk alhabak eman meziak oro egin ! Eta hatik, horra sukria, olio, ziho liberabat eta itziak. Zer beharzen besterik ekharri ? Segur zerbait ahatze zaik. » Gogoan horik erabilten zutialarik, heltu zen etcheat. Harturik merkhatian erosiak, sarthu zen. Alhabak bera sartzen ikhousi zianian galthatu zeron : « Eta ama noun duzu ? » — Etchezañak hain sarri : « Ai ! demountria, uduritzen zitaña bai, zerbait ahastzen zeitadala. Abil bertan, goure askazien etchen baratu dun. »



MAIATZA edo EPHAILA

Eg. luzatzen dira oren eta laourdenez




- ☾ a. l. 9<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 34<sup>min</sup>
- ☉ a. b. 15<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 56<sup>min</sup>
- ☽ l. l. 22<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 1<sup>min</sup>
- ☿ a. o. 30<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 32<sup>min</sup>

ARRAMAIATZA edo BAGILA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22<sup>a</sup> drano.



- ☾ a. l. 7<sup>n</sup>, arrast. or. 1 eta 52<sup>min</sup>
- ☉ a. b. 14<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup><sup>an</sup>
- ☽ l. l. 21<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 47<sup>min</sup>
- ☿ a. o. 29<sup>n</sup>, goizanko, 6<sup>or</sup> eta 35<sup>min</sup>



- |                         |                         |
|-------------------------|-------------------------|
| 1 Astelehen.            | J. Filipe et. Jak. Ap.  |
| 2 Asteharte.            | s. Atanasi .            |
| 3 Astizken.             | Da Khurutze.            |
| 4 Ostegun.              | sa Monika.              |
| 5 Ostirale.             | s. Pio V.               |
| 5 Neskanegun.           | J. Johane, Eb. B.L.     |
| 7 <b>Igante.</b>        | s. Stanizlaz.           |
| 8 Astel. <i>Rogaz.</i>  | J. Migel. <i>agert.</i> |
| 9 Asteh. <i>Rogaz.</i>  | s. Gregori, na.         |
| 10 Astiz. <i>Rogaz.</i> | s. Antoneñ.             |
| 11 Ostegun.             | SALBATORE               |
| 12 Ostirale.            | s. Nere eta Akil.       |
| 13 Neskanegun.          | s. Jenio.               |
| 14 <b>Igante.</b>       | <i>Johane Sala d.</i>   |
| 15 Astelehen.           | s. Eutrope.             |
| 16 Asteharte.           | s Johane Nep.           |
| 17 Astizken.            | s. Paskal.              |
| 18 Ostegun.             | s. Venanzio.            |
| 19 Ostirale.            | sa Pudenziena.          |
| 20 Neskanegun.          | s Bernardeñ S           |
| 21 <b>Igante.</b>       | PENTEKOSTE.             |
| 22 Astelehen.           | s. Kiteria.             |
| 23 Asteharte.           | s. Ubalde.              |
| 24 Astiz. <i>IV Th.</i> | A. B. Lagunzalia.       |
| 25 Ostegun.             | s. Gregori VII.         |
| 26 Ostir. <i>IV Th.</i> | s. Filipe Neri.         |
| 27 Nesk. <i>IV Th.</i>  | sa M. Madal. P.         |
| 28 <b>Igante.</b> 1     | TRINITE.                |
| 29 Astelehen.           | s. Garzia.              |
| 30 Asteharte.           | s. Felis.               |
| 31 Astizken.            | sa Anjela.              |

- |                     |                        |
|---------------------|------------------------|
| 1 Ostegun.          | BESTABERRI.            |
| 2 Ostirale.         | s. Poteñ.              |
| 3 Neskanegun.       | sa Klotilda.           |
| 4 <b>Igante.</b> 2  | s. <i>Frantzés K.</i>  |
| 5 Astelehen.        | s. Bonifazi.           |
| 6 Asteharte.        | s. Norbert.            |
| 7 Astizken.         | s. Majan.              |
| 8 Ostegun.          | s. Medart.             |
| 9 Ostirale.         | J. BIHOTZ SAK.         |
| 10 Neskanegun.      | sa Margarita.          |
| 11 <b>Igante.</b> 3 | J. BARNABE, <i>ap.</i> |
| 12 Astelehen.       | s. Johane Fag.         |
| 13 Asteharte.       | s. <i>Antoni Pad.</i>  |
| 14 Astizken.        | s. Basila.             |
| 15 Ostegun.         | sa Jermena.            |
| 16 Ostirale.        | s. Frantzés R.         |
| 17 Neskanegun.      | s Avit.                |
| 18 <b>Igante.</b> 4 | s. <i>Marina.</i>      |
| 19 Astelehen.       | s. Jervasi eta Prot.   |
| 20 Asteharte.       | s. Juliëna Falk.       |
| 21 Astizken.        | s. Louis Gonz.         |
| 22 Ostegun.         | s. Pauleñ.             |
| 23 Ostirale.        | s. Eusebio.            |
| 24 Neskanegun.      | J. JOHANE BA.          |
| 25 <b>Igante.</b> 5 | s. <i>Erosia.</i>      |
| 26 Astelehen.       | s. Johane Paule.       |
| 27 Asteharte.       | s. Prosper.            |
| 28 Astizken.        | s. Irene.              |
| 29 Ostegun.         | J. PETIRI P.           |
| 30 Ostirale.        | J. Paoleren orh        |



## UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1ez.




- ☾ a. l. 6<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 15<sup>m</sup>.  
 ● a. b. 13<sup>n</sup>, eguerdi eta 57<sup>m</sup>.  
 ☽ l. l. 20<sup>n</sup>, arratseko 5<sup>or</sup> eta 12<sup>m</sup>.  
 ☾ a. o. 28<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 19<sup>m</sup>.

## AGORRILA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz



- ☾ a. l. 5<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 33<sup>m</sup>.  
 ● a. b. 11<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 57<sup>m</sup>.  
 ☽ l. l. 19<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup> eta 1<sup>m</sup>.  
 ☾ a. o. 27<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 52<sup>m</sup>.



- |    |                   |                           |
|----|-------------------|---------------------------|
| 1  | Neskanegun.       | s. Tierri.                |
| 2  | <b>Igante.</b> 6  | A. B. BISITAZ.            |
| 3  | Astelehen.        | s. Gillen.                |
| 4  | Asteharte.        | s. Leon II.               |
| 5  | Astizken.         | s. Zirile.                |
| 6  | Ostegun.          | s. Trankile.              |
| 7  | Ostirale.         | s. Marzial.               |
| 8  | Neskanegun.       | sa Beronika.              |
| 9  | <b>Igante.</b> 7  | sa <i>Elisabet</i> , p.   |
| 10 | Astelehen.        | Zazpi anaie m.            |
| 11 | Asteharte.        | s. Pio.                   |
| 12 | Astizken.         | J. Johane Galb.           |
| 13 | Ostegun.          | s. Anaklet.               |
| 14 | Ostirale.         | s. Bonaventura            |
| 15 | Neskanegun.       | s. Johane Maj.            |
| 16 | <b>Igante.</b> 8  | A. D. M. KARM             |
| 17 | Astelehen.        | s. Alet-is.               |
| 18 | Asteharte.        | s. Kamille.               |
| 19 | Astizken.         | s. Bizente Paolo.         |
| 20 | Ostegun.          | s. Filibert.              |
| 21 | Ostirale.         | sa Pratseda.              |
| 22 | Neskanegun.       | sa <i>M. Maidalena</i>    |
| 23 | <b>Igante.</b> 9  | s. <i>Afolinari</i> .     |
| 24 | Astelehen.        | s. Henrik.                |
| 25 | Asteharte.        | J. JAKOBE, ap.            |
| 26 | Astizken.         | sa Aña.                   |
| 27 | Ostegun.          | s. Galatori.              |
| 28 | Ostirale.         | s. Nazari eta Zelze.      |
| 29 | Neskanegun.       | sa Marta.                 |
| 30 | <b>Igante.</b> 10 | s. <i>Abdon</i> .         |
| 31 | Astelehen.        | s. <i>Inaxio Loyola</i> . |

- |    |                   |                         |
|----|-------------------|-------------------------|
| 1  | Asteharte.        | J. Petiri katietan.     |
| 2  | Astizken.         | s. Alfonso Lig.         |
| 3  | Ostegun.          | J. Esteber. edir.       |
| 4  | Ostirale.         | s. Dominiche.           |
| 5  | Neskanegun.       | <i>A. D. M. Elhur.</i>  |
| 6  | <b>Igante.</b> 11 | <i>J. K. Transfig.</i>  |
| 7  | Astelehen.        | s. Kajetan.             |
| 8  | Asteharte.        | s. Ziriako.             |
| 9  | Astizken.         | s. Jermeñ.              |
| 10 | Ostegun.          | s. Laorenz, m.          |
| 11 | Ostirale.         | s. Tiburze.             |
| 12 | Neskanegun.       | sa Klara.               |
| 13 | <b>Igante.</b> 12 | sa <i>Radegonda</i> .   |
| 14 | Astelehen.        | s. Eusebi.              |
| 15 | Asteharte.        | A. D. M. MARIA Zel.     |
| 16 | Astizken.         | s. Rok.                 |
| 17 | Ostegun.          | sa Emilia.              |
| 18 | Ostirale.         | sa Elena.               |
| 19 | Neskanegun.       | sa Filomena.            |
| 20 | <b>Igante.</b> 13 | s. <i>Bernat</i> .      |
| 21 | Astelehen.        | s. Julien, Lesk.        |
| 22 | Asteharte.        | s. Ipolita.             |
| 23 | Astizken.         | s. Filipe Ben.          |
| 24 | Ostegun.          | J. BARTTOL., a.         |
| 25 | Ostirale.         | s. Louis, erreg.        |
| 26 | Neskanegun.       | s. Filibert.            |
| 27 | <b>Igante.</b> 14 | <i>A. D. M. Bib. S.</i> |
| 28 | Astelehen.        | s. Agosti.              |
| 29 | Asteharte.        | J. <i>Joh. Iephom.</i>  |
| 30 | Astizken.         | sa Rosa Lima.           |
| 31 | Ostegun.          | s. Remoun N.            |





BURUIA edo SETEMER

Eg. llaburtzen dira or. eta 3/4 ez.

+++


- ☉ a. l. 3<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 51 min.
- ☉ a. b. 10<sup>n</sup>, goizanko 7<sup>or</sup> eta 14 min.
- ☽ l. l. 18<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>er</sup> eta 28 min.
- ☽ a. o. 25<sup>n</sup>, arratsek. 8<sup>or</sup> eta 32 min.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira orien eta erdiz.

+++

- ☉ a. l. 2<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 28 min.
- ☉ a. b. 9<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 37 min.
- ☽ l. l. 17<sup>n</sup>, arratsek. 11<sup>or</sup> eta 29 min.
- ☽ a. o. 25<sup>n</sup>, goizanko 7<sup>or</sup> eta 37 min.
- ☉ a. l. 31<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 51 min.



- 1 Ostirale s. Bizente ap. m
- 2 Neskanegun. s. Eztebe, erreg
- 3 **Igante.** 15 s. *Lixier.*
- 4 Astelehen. sa Franz. Chant
- 5 Asteharte. s. Laorenz J.
- 6 Astizken. s. Onesifore.
- 7 Ostegun. s. Zebero.
- 8 Ostirale. A. B. SORTZIA.
- 9 Neskanegun. s. Omer.
- 10 **Igante.** 16 A. B. *Izen Saint.*
- 11 Astelehen. s. Hiazinte.
- 12 Asteharte. s. Gi.
- 13 Astizken. sa Eujenia.
- 14 Ostegun. D<sup>na</sup> *Khurutze.*
- 15 Ostirale. s. Nikomede.
- 16 Neskanegun. s. Ziprieñ.
- 17 **Igante.** 17 A. B. DOLOR.
- 18 Astelehen. s. Jusef Kup.
- 19 Asteharte. s. Janvier.
- 20 Astizk. *IV Th.* s. Eustache.
- 21 Ostegun. J. MATHIU, Eb.
- 22 Ostir. *IV Th.* s. Maur.
- 23 Nesk. *IV Th.* sa Tekla.
- 24 **Igante.** 18 A. B. Librazalia.
- 25 Astelehen. s. Austinde.
- 26 Asteharte. s. Tomas Vill.
- 27 Astizken. s. Kosme eta Dam.
- 28 Ostegun. s. Fauste.
- 29 Ostirale. J. MIGEL, ARK.
- 30 Neskanegun. s. Jeronimo.

- 1 **Igante.** 19 ARRUSARIO
- 2 Astelehen. *Ainguru Begir.*
- 3 Asteharte. s. Exupero.
- 4 Astizken. s. *Franzes. As.*
- 5 Ostegun. s. Venzeslaz.
- 6 Ostirale. s. Bruno.
- 7 Neskanegun. sa Fide.
- 8 **Igante.** 20 A. B. *Amatarz.*
- 9 Astelehen. s. Denis.
- 10 Asteharte. s. Frantzes Bor.
- 11 Astizken. sa Sabina.
- 12 Ostegun. sa Domnina.
- 13 Ostirale. s. Edouar.
- 14 Neskanegun. s. Kalista.
- 15 **Igante.** 21 A. B. *Garbitarz*
- 16 Astelehen. s. Bertran.
- 17 Asteharte. s. Edvije.
- 18 Astizken. J. LUK Ebanj.
- 19 Ostegun. s. *Grat.* Olor.
- 20 Ostirale. s. Johane K.
- 21 Neskanegun. sa Ursula.
- 22 **Igante.** 22 A. B. *Patron.*
- 23 Astelehen. s. Leotade.
- 24 Asteharte. s. *Rafael,* ark.
- 25 Astizken. s. Krespeñ.
- 26 Ostegun. sa. Arrerosle.
- 27 Ostirale. s. Fronton.
- 28 Neskanegun. J. SIMOUN, ap.
- 29 **Igante.** 23 *Errelikia sk.*
- 30 Astelehen. s. Kazieñ.
- 31 Asteharte. s. Zirizio.



## AZAROA edo GOROTZILA


Egunak llaburtzen dira oren 1<sup>ez</sup>.

- ⊙ a. b. 8<sup>n</sup>, arrastiriko or 1 eta 6<sup>m</sup>
- Ⓜ l. l. 16<sup>n</sup>, arratseko 5<sup>or</sup> eta 54<sup>min</sup>
- Ⓢ a. o. 23<sup>n</sup>, arratseko 6<sup>or</sup> eta 18<sup>m</sup>
- Ⓣ a. l. 30<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 17<sup>m</sup>

## ABENTIA edo NEGILA

Eg. llaburtzen dira 27<sup>min</sup>, 22<sup>no</sup>.

- ⊙ a. b. 8<sup>n</sup>, goizanko 7<sup>or</sup> eta 50<sup>m</sup>
- Ⓜ l. l. 16<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup> eta 31<sup>m</sup>
- Ⓢ a. o. 23<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 46<sup>m</sup>
- Ⓣ a. l. 29<sup>n</sup>, arratseko 11<sup>or</sup> eta 27<sup>m</sup>




- |                      |                         |
|----------------------|-------------------------|
| 1 Astizken.          | · DONISANTORE.          |
| 2 Ostegun.           | <i>Purg. Arimak.</i>    |
| 3 Ostirale.          | s. Sebero.              |
| 4 Neskanegun.        | s. Charles Bor.         |
| 5 <b>Igante.</b> 24  | s. <i>Zakaria.</i>      |
| 6 Astelehen.         | s. Léonart.             |
| 7 Asteharte.         | s. Florent.             |
| 8 Astizken.          | 4 Martirak.             |
| 9 Ostegun.           | s. Teodoro.             |
| 10 Ostirale.         | s. Andreu Av.           |
| 11 Neskanegun.       | J. MARTINE.             |
| 12 <b>Igante.</b> 25 | ELIZEN SAKR.            |
| 13 Astelehen.        | s. Stanizlaz K.         |
| 14 Asteharte.        | s Josafat.              |
| 15 Astizken.         | s. Jertruda.            |
| 16 Ostegun.          | s. Edmon.               |
| 17 Ostirale.         | s. Gregori Taum.        |
| 18 Neskanegun.       | s. Odon.                |
| 19 <b>Igante.</b> 26 | sa <i>Elisabet</i> Hgr. |
| 20 Astelehen.        | s. Félix, Valési.       |
| 21 Asteharte.        | <i>A. B. Eskentzia</i>  |
| 22 Astizken.         | sa <i>Zezila.</i>       |
| 23 Ostegun.          | s. Klement.             |
| 24 Ostirale.         | s. Johane Kh.           |
| 25 Neskanegun.       | sa Katalina.            |
| 26 <b>Igante.</b> 27 | s. <i>Petiri Al.</i>    |
| 27 Astelehen.        | s. Virjile.             |
| 28 Asteharte.        | s. Maurino.             |
| 29 Astizken.         | s. Saturnino            |
| 30 Ostegun.          | J. ANDREU, Ap.          |

- |                         |                                  |
|-------------------------|----------------------------------|
| 1 Ostirale.             | s. Eloi.                         |
| 2 Neskanegun.           | sa Bibiana.                      |
| 3 <b>Ig.</b> S. Fr. S.  | ABENTUKO 1 <sup>a</sup>          |
| 4 Astelehen.            | s. Barbara.                      |
| 5 Asteharte.            | s. Sabas.                        |
| 6 Astizken.             | s. Nikolas.                      |
| 7 Ostegun.              | s. Ambrosi.                      |
| 8 Ostirale.             | A. B. Konzepz.                   |
| 9 Neskanegun.           | s. Jeronze.                      |
| 10 <b>Igante.</b>       | <i>Abentuko</i> 2 <sup>a</sup>   |
| 11 Astelehen.           | s. Daniel.                       |
| 12 Asteharte.           | s. Melkiade.                     |
| 13 Astizken.            | sa Luzia.                        |
| 14 Ostegun.             | s. Arzene.                       |
| 15 Ostirale.            | s. Mismen.                       |
| 16 Neskanegun.          | s. Eusebio.                      |
| 17 <b>Igante.</b>       | <i>Abentuko</i> 3 <sup>a</sup> . |
| 18 Astelehen.           | s. Gazieñ.                       |
| 19 Asteharte.           | s. Urbeñ.                        |
| 20 Astiz. <i>IV Th.</i> | sa Julia.                        |
| 21 Ostegun.             | J. TOMAS, Ap.                    |
| 22 Ostir. <i>IV Th.</i> | s. Flavieñ.                      |
| 23 Nesk. <i>IV Th.</i>  | s. Honorat.                      |
| 24 <b>Igante.</b>       | <i>Abentuko</i> 4 <sup>a</sup> . |
| 25 Astelehen.           | EGUBERRI.                        |
| 26 Asteharte.           | J. EZTEBE, m.                    |
| 27 Astizken.            | J. JOHANE, Eb.                   |
| 28 Ostegun.             | <i>Hour Inoz.</i>                |
| 29 Ostirale.            | s. Tomas, Kant.                  |
| 30 Neskanegun.          | s. Mansuet.                      |
| 31 <b>Igante</b>        | s. Silbestre.                    |



## OURTHEKO HAROAK :

BEDATSIA hasten da martchoko	20 <sup>an</sup> .
UDA hasten da arramaiazteko	20 <sup>an</sup> .
LARRAZKENA hasten da buruilako	22 <sup>an</sup> .
NEGIA hasten da abentuko	21 <sup>an</sup> .




## MERKHATIAK ETA FEIRAK

MAOULEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruilaren 6<sup>n</sup>. — ATHAR-  
 RATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik ; **f.**, Phentekoste bihara-  
 menian *eta* Donisantore oundoko astelehenian. — DONI JOANE  
 GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste  
 ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**,  
 Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentiaren 26<sup>n</sup>. — GARRUZEN :  
**m.**, ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1<sup>n</sup> *eta* azaroko lehen astizkenian.  
 — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthall. 3<sup>n</sup> *eta*  
 aphiliril. 15<sup>n</sup>. — HAZPARNEN : **m.**, asteh. amoust. ; **f.**, Bazko ondoko  
 astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh. amoust. — NAVARENKOSEN :  
**m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizk<sup>n</sup>, *eta* abent<sup>n</sup> 8<sup>n</sup>. —  
 ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen  
 asteh<sup>n</sup>. — OLOROUN : **m.**, ostir, *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1<sup>n</sup> ;  
*eta* burull<sup>n</sup>, 8<sup>n</sup>, hirour eg. — PAOUBEN : **m.**, astel. *eta* osteg.,  
**f.**, Gorozum. lehen asteleh<sup>n</sup>, *eta* Jaoundoni Martinez, 8 eg. —  
 SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizk<sup>n</sup> *eta* urrie-  
 taren asken ostegunian.





## Edirengia



I. Aita Sainiaren erakouspenak.....	I
II. Mous de Etcheverry deputatia... ..	4
III. Kongregazioniak eta gobernia... . . . .	7
IV. Errelijionia eta gobernia ; aphezak tribunaletan..	10
V. Botz emailen eginbidiak deputatukan.....	12
VI. Oraiko eskolak.....	16
VII. Ligiko zubia.....	19
VIII. Laborantzaz :	
1 <sup>ik</sup> Uztak 1892 <sup>an</sup> .....	22
2 <sup>ik</sup> Bazka berribat.....	25
3 <sup>ik</sup> Ogien moundolletan ezartiaz.....	27
4 <sup>ik</sup> Sagar ardouaz.....	29
IX. Istoria eta erasi.....	30

